



Ikasturteko programazio didaktikoa

| | | | |
|--|---|---------------|-----------|
| ikastetxea: | IKASBIDEA IPI IKASTOLA | kodea: | 010012 |
| etapa: | DBH | zikloa/maila: | 4 |
| arloan/irakasgaia: | EKINTZAILETZA ETA ENPRESA JARDUERETARAKO HASTAPENA | | |
| osatutako arloak/irakasgaiak | | | |
| diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak | a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. b) Matematikarako kompetentzia c) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia. | | |
| irakasleak: | ASIER ASKASIBAR BIZKARRALEGORRA | ikasturtea: | 2022-2023 |

Zeharkako konpetentziak:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

| HELBURUAK | EBALUAZIO - IRIZPIDEAK |
|--|---|
| <p>1. Jarrera ekintzailea sustatzea eremu pertsonalean, gizarte-eremuan eta, bereziki, lan-eremuan, eta edozein pertsonak bere garapenean eta bilakaeran izan beharrezko funtsezko printzipioa dela ohartzea. Orobat, haren ondorioak aztertzea, eta, funtsean, ohartu eta bere egitea pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea/problemei konponbidea ematea eta lidergoa jarrera ekintzailea izateko ezinbesteko ekintzak direla.</p> | <p>1. Ekintzailetzari lotutako gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak ezagutzea eta aintzat hartzea, eta lanpostuek eta enpresa-jarduerek zer eskakizun dituzten aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Kultura ekintzailearen" kontzeptua aztertzen du, eta norberak aurrera egiteko, gizarte-ongizaterako, eta aintzat hartzen du, beharrezkoa baldin bada, enplegua sortzeko duen garrantzia. • Pertsona ekintzaileen berezko gaitasun pertsonalak, jarrerak, asmoak eta prestakuntza zein diren badaki. • Enpresa berritzaileak sortzeko balioak, emakumeen eta gizonen gaitasunak berdintasunez hartzeko neurriak zein diren badaki. |



2. Jakitea zer informazio behar den zenbait egoeratan (eta, bereziki, lan-jardueran, dela besteren konturakoa, dela norberaren konturakoa), baliabideak erabiltzea informazio hori lortzeko, eta jarduera ekintzaile bat gauzatzeko beharrezkoak diren prozesuak eta aukera-azterketak egitea.

3. Enpresa bat sortzeko oinarrizko faseak eta ekintzak deskribatzea, eta, bereziki, autonomo gisa hastekoak edo ETE bat eratzeak, eta kasu bati buruzko proiektu edo azterketa bat aurkeztea (kasuak bideragarritasunari buruz eztabaidatzeko aukera eman behar du).

4. Enpresa bateko sail nagusiak edo enpresan egiten diren oinarrizko funtzioak zein diren adieraztea, haietako bakoitzeko helburuak eta eginkizunak deskribatzea, eta azaltzea zer harreman eta betebeharrak dituzten egiten duten jardueran parte hartzen duten eragile, entitate eta erakunde publikoekiko.

- Iniziatiba eta ekintzaitza gaitasuna eragiten eta uzkuartzen duten estereotipoak eta sexuen araberrako rolak aztertzen ditu.

- Berrikuntza-kontzeptua identifikatzen du, eta gizartearen aurrerapenarekin eta pertsonen ongizatea handitzearekin lotzen du.

- "Aukerak" eta "arriskua" kontzeptuak aztertzen ditu, ekimen eta jarduera ekintzaile ororen funtsezko elementuak diren heinean.

- Enpresaburuen jarduera eta enpresaburuek enplegua eta gizarte-ongizatea sortzean duten rola deskribatzen ditu, enpresa-jarduera garatzeko behar diren betebeharrak eta jarrerak aztertuz.

2. Bere bizitzari buruzko erabakiak hartzea, eta ulertzea, bere trebetasunak kontuan hartuta, zer enplegu, autoenplegu edota karrera profesional aukera ditzakeen, eta bizitzan zeharreko zer prestakuntza- eta ikaskuntza-alternatiba dituen.

- Baliabide telematikoak erabiliz, ingurunekeo jarduera profesionaleko arloak ikertzen ditu, baita haiek garatzen dituzten enpresa motak eta bakoitzaren lanpostuak ere, haietako bakoitzean lanean aritzeko eskakizunak arrazoituz.

- Bere curriculuma egiten du, prestakuntza-alorrean dauzkan ahalmekak deskribatuz, ikasketa informalak eta gizarte-testuinguruetan eduki dezakeen esperientzia erantsiz (elkarte eta kirol-taldeetan parte hartzea, etab.), dagokionak interpretatzeko aukera izan dezan.

- Karrera profesionaleko proiektu propio bat diseinatzen du, ingurunearen aukerak gaitasun eta asmo pertsonalekin lotuz, autoenpleguaren aukera eta bizitza osoan prestatzen jarraitu beharra aintzat hartuz.



3. Etorkizuneko langile arduratsu moduan jokatzera eta langile moduan zer eskubide eta betebeharrak izango dituen jakitea, Estatuak eta Gizarte Segurantzak langilea babesteko egiten duten lana aintzat hartzea, eta laneko arriskuetatik babesteko beharrezkoak ulertzea.

- Langile eta enpresaburuaren arteko harremanetan esku hartzen duten arau eta instituzioak identifikatzen ditu, lan-merkatuaren funtzionamenduarekin lotuz.
- Lan-harremanetatik eratorritako diren eskubide eta betebeharrak bereizten ditu, lan-kontratuaren eta negoziazio kolektiboko dokumentuaren egiaztatuta.
- Gizarte Segurantzako sistemaren oinarriak deskribatzen ditu, baita enpresaburuak eta langileak sistema horretan dituen betebeharrak ere, estalitako kontingentziak babesteko duen ekintza balioetsiz eta prestazioak deskribatuz, webgune instituzionaletan bilaketak eginez.
- Ingurunearen jardura ekonomikoko sektore garrantzitsuetan ohikoenak diren lan-arriskuko egoerak zein diren badaki, eta legez ezarritako prebentzio metodoak adierazten ditu, baita istripu- edo kalte-kasuetan aplikatzekoak diren lehen laguntzetako teknikak ere.

4. Ikasgelan enpresa-proiektu bat sortzea, eta arrazoitza zergatik aukeratu duten ideia jakin bat ideien multzo batetik. Orobat, oinarrizko merkatu-azterketak egitea, jardura-eremuen gaineko eraginak aztertzea, eta proiektuetan balio etikoak txertatzea.

- Negozio-ideiak sortzeko prozesuak garatzen ditu.
- Negozio-ideiak hautatzen ditu argudio egokiak erabiliz, enpresa-proiektu baten egokitasuna zehaztuz.
- Oinarrizko merkatu-azterlan bat egiten du hautatutako negozio-ideiaren inguruan, eta ondorioak ateratzen ditu eta justifikatzen.
- Enpresen gizarte-erantzukizunaren



| | |
|--|--|
| | <p>fenomenoa aztertzen du, eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aintzat hartzen du.</p> <ul style="list-style-type: none">• Enpresen forma juridikoak deskribatzen ditu, haien jabe eta kudeatzaileen kapital-eskakizunekin eta lege-erantzukizunekin lotuz.• Enpresak abian jartzearekin zerikusia duten administrazio publikoak zerrendatzen ditu, eta abian jartzetik eratortzen diren dokumentu nagusiak biltzen ditu, bide telematikoen bitartez.• Enpresa-proiektuaren barneko eta kanpoko ezaugarriak zein diren badaki, baita enpresaren sarea osatzen duten elementuak ere: merkatua, hornitzaileak, bezeroak, ekoizpen-eta/edo merkaturatze-sistemak, biltegiatzea etab.• Enpresa-proiektuaren eta haren sektorearen arteko harremana deskribatzen du, baita haren antolaketa-egitura eta sail bakoitzaren eginkizunak ere, eta produkzio- edo merkataritza-prozesua garatzeko lan-prozedurak zein diren badaki.• Agintariak hainbat inguruetan (erkidegoa, estatua edo Europa) egiten dituzten laguntza-, erregistro-, kontrol- eta ikuskatze-zereginak aintzat hartzen ditu, proiektura egokitzeko aukerak identifikatuz eta egin beharreko izapideak deskribatuz.• Gizon eta emakumeen arteko enpresaren berdintasunerako estrategiak eta neurriak, enpresa-proiektuaren babes soziala eta iraunkortasuna bermatzen duten balioak direla jabetzen da.• Enpresa-plan bat aurkezten du, honako hauek deskribatuta: forma juridikoa, garatu beharreko xedea, eratzeko izapideak eta eman litezkeen laguntza edo diru-laguntzak. |
|--|--|



5. Enpresa-proiektuko enpresaren berezko ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak egitea, komunikazio-teknikak erabiltzea, talde-lanean aritzea eta informazioa egoki kudeatzea.

- Ereduzko ekoizpen-prozesua ezartzen du, enpresa-ideiarekin edo -planarekin bat datorrena, eta hornitzaile-premiak ezarrita.
- Bezeroen, hornitzaileen eta beste batzuen kontrola eta jarraipena egiteko aplikazio informatiko bat erabiltzen du, merkataritzako eta langileen administrazioko oinarritzko teknikak aplikatuz enpresa-proiektuaren informazioa antolatzen.
- Enpresa-proiektuaren produktu eta/edo zerbitzuak hedatzeko eta haien publizitatea egiteko materialak sortzen ditu, interneten eta sare sozialetan komunikatzeko plan bat barne, hizkuntzaren eta irudien erabilpen inklusiboa marketin-printzipioetan aplikatuz. Enpresa-proiektuaren barruan ekoizpen- eta/edo merkaturatze-zereginak betetzen ditu, erabakiak hartuz, taldean lan eginez, epe eta helburuak betez, eta hobekuntzak proposatuz, aldeztatik ezarritako kontrol-planari jarraiki.

6. Enpresa baten (zehazki, ETE baten) oinarritzko administrazio- eta finantza-kudeaketako jarduerak egitea, kontabilitateko eta zerga-arloko zer betebeharrak nagusi dituzten jakitea, eta dokumentazioa behar bezala betetzea*.

- Enpresa forma juridiko bakoitzaren finantziario-iturriak zein diren badaki, kanpokoak eta barnekoak barne, eta egokiena hautatzen du, forma juridikoaren arabera eta enpresaren bizi-zikloaren unearen arabera.
- Enpresa bat abian jartzeko behar diren inbertsioak zehazten ditu, eta egoera-balantze batean jasotako partida nagusiak bereizten ditu.
- Inguruko finantza-entitateetako finantza-produktuak aztertzen ditu, enpresa mota bakoitzerako egokienak hautatu ondoren, bakoitzaren kostua eta arriskua aintzat hartuta,



| | |
|--|---|
| | <p>eta enpresa proiekturako egokienak aukeratzeko jarraian.</p> <ul style="list-style-type: none">• Enpresen eguneroko finantziario-aukeren oinarriko ezaugarriak adierazten ditu, kanpoko eta barneko finantziarioa, epe laburrerakoa eta luzerakoa, bakoitzaren kostua, eta enpresaren ibilbidean duten inplikazioak aintzat hartuta.• Oinarriko kontabilitate-kontzeptuak aztertzen ditu, baita kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak ere.• Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarriko prozedura edo teknikak deskribatzen ditu, bereziki enpresa baten kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.• Jardueraren arabera enpresek bete beharreko zerga-betebeharrak zein diren badaki: ekonomia-jardueren gaineko zerga, BEZa, PFEZa eta sozietateen gaineko zerga; haien arteko alde nagusiak adierazten ditu, eta zerga-kargak estatuko aberastasunari egiten dion ekarpena aintzat hartzen du.• Oinarriko kontabilitate- eta zerga-dokumentazioa betetzen du, eta dokumentazio horrek enpresan egiten dituen zirkuituak deskribatzen ditu.• Enpresa-proiektuaren epe ertainerako bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlanak aurkezten ditu, aztertutako finantza-produktuen benetako baldintzak aplikatuz eta salmenta-aurreikuspenak eginez inguruneari buruzko azterlan baten arabera, horretarako aplikazio informatiko bat erabiliz, kalkulu-orri bat adibidez, eta oinarriko finantza-ratioak maneiatuz. |
|--|---|

(*): Ez dute lehentasunik izango itxialdia gertatuz gero, gainontzekoak minimo bezala uler daitezke.



EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

| EDUKIEN DENBORALIZAZIOA | | | | | |
|-------------------------|--|---------------|---|---------------|---|
| 1. ebaluazioa | | 2. ebaluazioa | | 3. ebaluazioa | |
| 1 | IRAKASGAIAREN AURKEZPENA | 5 | 5. NEGOZIO IDEIA eta ENPRESAREN ELEMENTUAK | 8 | 9. GAIA: INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA |
| 8 | 1. GAIA: ENPRESA EKINTZAILETZA | 12 | 6. GAIA: ENPRESA PROIEKTUA | 9 | 10. GAIA: ZERGAK ETA ENPRESA |
| 7 | 2. GAIA: IBILBIDE PROFESIONALA ETA LANAREN BILAKAERA | 8 | 7. GAIA: ENPRESAREN FORMA JURIDIKOAK | 8 | 11. GAIA: ENPRESAREN BIDERAGARRITASUNA. |
| 8 | 3. GAIA: LANA ETA LAN HARREMANAK | 8 | 8. GAIA: EKOIZPENA, MERKATURATZEA ETA MARKETINA | 9 | 12. GAIA: ENPRESA PROIEKTUA |
| 10 | 4 UD: GIZARTE SEGURANTZA eta LAN ARRISKUAK | 1 | KONTROLA | 1 | KONTROLA |
| 1 | KONTROLA | | | | |



METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

1. Kasu batzuetan ikasleak banaka edo binaka jarriko dira ordenagailuetan jarduera ezberdinak egiteko.
2. Irakasleak azalpenak emango ditu, ondoren azaldutakoari buruzko ariketa ezberdinak burutuko dituzte ikasleek.
3. Talde bakoitzak bere erritmoa eramango du irakaslearen laguntza puntualak jasoz. Modu honetan ikaslea, lan pertsonalaren bidez, bere ezagueraren eraikitzailea da.
4. Unitate guztiei orientazio praktikoa emango diegu, berez praktikoa ez direnak proiektu bidez landuz. Modu honetara, ikasitako tresna eta aplikazio desberdinak berrindartuko dira eta ikerketarako jakin mina bultzatuko da.
5. Gaiaren arabera, taldeka proiektu bat egingo dute.
6. Gai batzuetan ahozotasuna eta testuen ulermena lantzeko aurkezpena egin beharko dute, irakasleak ematen dituen testuak eta interneten lortutako informazioa landuz.
7. Ebaluaketa bakoitzean gutxienez azterketa bat egingo da.



| | |
|--|--|
| <p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> | <p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> |
| <p>Klasean landutako materiari buruzko idatzizko froga bat egingo da gutxienez ebaluaketa bakoitzean, baita banakako edo taldekako lan bat ere. Horrez gain, eguneroko lana, parte hartzea eta zeharkako kompetentziak hartuko dira kontuan gelako behaketa zuzenaren bitartez. Horretarako INIKA erabiliko da. Ebaluaketa bakoitzean koadernoaren jarraipena egingo da.</p> <p>*Klaseak ez badira presentzialak, ikasleak egindako galdetegiak eta kasu praktikoak hartuko dira kontutan, ikaslea ebaluatzerako orduan.</p> | <p>➤ Idatzizko probak: %50</p> <p>Azterketen bidez neurtuko da. Azterketa bat baino gehiago eginez gero, bakoitzari ehuneko bat esleituko zaio edukiaren garrantziaren arabera. Idatzizko proben atal honetan 4ko nota minimoa atera beharko da ekoizpen eta zeharkako kompetentziekin batera, ebaluazioko notaren batz bestekoa egin ahal izateko.</p> <p>➤ Ekoizpenak: %30</p> <p>Ariketak eta lanak baloratuko dira (garaiz entregatutako banaka zein taldekakoak).</p> <p>Ebaluazioan zehar ikasgelan zein etxean eginiko lanak, taldeko dinamikak eta irakasleari entregatutako lanak baloratuko dira. Taldeka egindako dinamika, lanen parte hartze maila eta inplikazioa ere baloratuko da.</p> <p>Ekoizpenen atala gainditzen ez bada (gutxieneko nota 5 ez bada), ekoizpenen atala suspenditu egingo da eta beraz, baita ebaluazioa ere.</p> <p>Ebaluazioa ekoizpenen atalagatik suspenditzen bada, baina idatzizko probak gainditu badira, azken hauen nota gorde egingo da.</p> <p>➤ Zeharkako kompetentziak: %20</p> <p>Parte-hartzea eta interesa baloratuko dira, baita etxerako lanak edo eguneroko ahalegina seriotasunez hartzea ere. Bestalde, ez da onartuko ikasleen arteko, zein irakaslearekiko errespetu faltarik. Atal hau behaketaren bidez baloratuko da klasean eta INIKAn erregistratuko da. <u>Eranskineko errubrika</u> atal hau osatzeko erabiliko da.</p> <p>Ikasle bakoitza 10eko notarekin hasten da eta hortik gutxitu egingo zaio nota, ondorengoak gertatuz gero: justifikatu gabeko hutsegitea (puntu bat), puntualitate falta (puntu bat), klasean jarrera txarra¹ (puntu bat).</p> <p>Irakasgaia gainditzeko hiru atal hauetako batz bestekoak 5 baino altuagoa izan beharko du.</p> |



EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].

- Irakasgaiaren azken nota 3 ebaluaketen batz besteko nota izango da baina horretarako, 3 ebaluaketak gaindituak (Nota 5 edo gehiago) egon beharko dute.
- Idatzizko probak gainditu baina ebaluazioa suspenditu egin bada, lan bat/batzuk entregatu beharko dira. Atal horiek berreskuratzen badira 5koa lortuko da gehienez.
- Ebaluazioko idatzizko proba (k) ez bad(ir)a gainditu: Ikasgaia berreskuratzeko, idatzizko froga bat egingo da Ebaluazio osoko edukiarekin. Berreskurapen azterketa gainditzen bada, ebaluazioko nota gehienez 6 izango da eta honela jarriko da:
 - Berreskurapen nota 5 eta 7 artean badago = 5 puntu idatzizko probetan ebaluaketa horretan.
 - Berreskurapen nota 7 tik gora badago = 6 puntu idatzizko probetan ebaluaketa horretan.
- Ebaluazio baten berreskurapena gainditzen ez bada, ebaluaketa horren idatzizko proba egin beharko da, **AZKENEAN**.

OHARRAK

Eskatuko diren **zeharkako kompetentziak**¹ hauek izango dira:

1. Errespetua eta Ikastetxeko funtzionamendu arauak betetzea (Gida didaktikoa).
2. Klaseetan parte hartzea:
 - Jarrera aktiboa eta positiboa (ez hitz egin, trabarik ez egin, arreta ikaskideei, irakasleari, ...)
 - Lan pertsonala egitea.
 - Talde lanetan parte hartzea.
 - Klaserako beharrezkoa den materiala ekartzea.
 - Lanen eta jardueren epeak betetzea.
 - Hutsegiteak egin ondoren, egunean jartzea.
 - Egingo diren ekintza osagarrietan parte hartzea eta jarrera ona erakustea.
 - Irakasle eta ikasleekiko errespetua.
 - Elkarrizketa eta debateetan jarrera baikorra.
 - Bai gelan bai koadernoetan txukuntasuna eta garbitasuna.
 - Euskara erabiltzea komunikatzerako orduan.

Batez ere puntu hauek kontrolatuko dira eta zuzendaritzari horien berri emango zaie bertaratze parte desegokien bitartez:

- Mugikorra klasean erabiltzea (ezin da ez entzun ez ikusi).
- Hardware eta softwarearen erabilera txarra.
- Ikasgeletan jan edo edan.
- Errespetu falta irakaslearekiko edo ikasleekiko.



ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik errebanteenak agertuko dira.].

1. TESTUINGURUA

Gasteizko Frantzia kalean 250 m2 merkataritza – lokal bat duzu, eta ez dakizu zer egin.

2. PROBLEMA

Enpresa sortzeko prozesuari hasiera emateko material, giza eta finantza baliabideak martxan jartzea suposatzen du, arriskuei aurre egiteko erantzukizun gaitasunak aplikatzea, bai eta giza baliabide eta antolakuntza gaitasunak garatzea ere.

Zertarako erabiliko zenuke merkataritza – lokal hori?

3. XEDEAK

Hasierako ideia, modu egokian landu eta enpresa proiektu baten prestakuntzari hasiera ematea.

4. HELBURUAK

- Informazio egokia jasotzea.
- Datuak modu ordenatuan jasotzea.
- Lanak modu txukun eta ulergarrian aurkeztea.
- Enpresa bat sortzeko egin beharreko urratsak ulertzea.

5. ATAZA

- Negozio ideia garatu.
- Eraketarako egin beharrekoa: Forma juridikoa aukeratu, dokumentu tramiteak...
 - Enpresa proiektuaren bideragarritasuna: Bideragarritasun plana.

6. JARRAIBIDEAK

- Proiektuaren sustatzaileak. Ideiaren hautaketa eta enpresa jardueraren deskribapen orokorra.
- Ingurune, sektore eta lehiaren azterketa eta analisisa.
- Merkatu ikerketa.
- Marketin plana.
- Forma juridikoaren hautaketa.
- Enpresa eta produktuen identifikazioa. Kokapena. Administrazioa eta zerbitzu orokorrak.
- Enpresaren antolaketa funtzionala, giza baliabideak, organigrama.
- Inbertsio eta finantza plana: Azterketa ekonomiko- finantzarioa.
- Lanaren planifikazioa; dokumentazioa eta enpresa proiektuaren aurkezpena.



ERANSKINA: ZEHARKAKO KONPETENTZIA ERRUBRIKA

| ZEHARKAKO KONPETENTZIAK | ADIERAZLEAK | 10-8 (aurreratua) | 7-5 (tartekoa) | 4-1 (hasierakoa) | HAZTAPENA |
|-----------------------------------|--|---|---|--|-----------|
| EK NIIK | Errespetua (ikaskideekiko, irakasleekiko, langileekiko), puntualtasuna. | Ez du irakasle zein ikaskideen hitza eteten, errespetuz aritzen da, beti puntual etortzen da. | Batzuetan irakasle zein ikaskideen hitza eteten du, Gehienetan puntual etortzen da. | Sarritan oztopatzen du. Klaseko materiala ez du modu egokian erabiltzen. Normalean berandu iristen da. | %35 |
| HDKK IPIK EK EEK NIIK | Lana (bakarka, taldeka), Interesa, parte hartzea, autonomia, materiala. | Klasean modu egokian parte hartzen du, behar den materiala ekartzen du eta lan egiten du. | Batzuetan ez du lanik egin. Batzuetan ez du materiala ekarri. | Gutxitan egiten du lana. Gutxitan ekartzen du materiala. | %40 |
| HDKK EK | Euskararen erabilera. | Beti euskara erabiltzen du. Modu txukunean idazten du. | Batzuetan gaztelania erabiltzen du. Zailtasun handiak ditu euskaraz idazteko. | Gutxitan erabiltzen du euskara edo ez du euskaraz egiten. Oso gaizki idazten du euskaraz. | %25 |

HDKK: Hitzez, hitzik gabe eta Modu digitalean Komunikatzeko Konpetentzia.

IPIK: Ikasten eta Pentsatzen Ikasteko Konpetentzia.

EK: Elkarbizitzarako Konpetentzia.

EEK: Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.

NIIK: Norbera Izaten Ikasteko Konpetentzia.

EBALUAZIO TRESNAK:

· Behaketaren bidez: irakaslearen koaderno, Inika eta Errubrika honen bitartez.